



## URRUZUNOTARRAK GEHITUZ 2015-2016

### ekimenean parte hartzeko oinarri-arauak

1.- Ekimen honetan 2015-2016 ikasturtean Bigarren Hezkuntzan diharduten eta hurrengo ataletan zehazten diren mailetako ikasleek soilik hartu ahal izango dute parte.

2.- Ikasle horien artean bi kategoria bereiziko dira: B gazteak (DBHko 3. eta 4. mailak) eta A gazteak (Batxilergoko 1. eta 2. mailak, edo Erdi Mailako Heziketa Zikloak).

3.- Literatura-lanek orijinalak izan behar dute, lehiaketa honetan izena emateko epea itxi arte bestelako literatura-saririk irabazi gabeak. Lanak euskaraz sortuak izango dira, bai poesiaz bai prosaz, betiere Euskaltzaindiak onartuta dauzkan ortografia eta gramatika arauak betez. Gaia librea izango da.

4.- Egileak lanaren paperezko alea eta CDa aurkeztu behar ditu (CDan idazlana pdf eta word formatuetan aurkeztuko ditu). Lehen orrialdean lanaren izenburua, egilearen izengoitia, arloa eta kategoria jarriko dira soil-soilik, dena ere letra larriz. Egilearen izen-abizenak ez dira agertuko lehen orrialde horretan. Lanarekin batera, gutun-azal itxi batean, parte-hartze orria behar bezala beteta bidali behar da (II. eranskina). Gutun-azalaren kanpoaldean, egilearen izengoitia idatziko da.

5.- Lanen neurriak hauek izango dira:

Prosa: - B kategoria: 4000-12000 karaktere, 1,5eko lerroartearekin (2 eta 6 orrialde bitartean, 12ko hizkiarekin).

- A kategoria: 5000-15000 karaktere, 1,5eko lerroartearekin (3 eta 8 orrialde bitartean, 12ko hizkiarekin).

Poesia: - B kategoria: gutxienez 50 lerro (Olerki bat baino gehiagoz osa daitezke).

- A kategoria: gutxienez 75 lerro (Olerki bat baino gehiagoz osa daitezke)

6.- Idazlana, dagokion CDa eta parte hartzeko orria bidaltzeko epea **2016ko urtarrilaren 13tik otsailaren 29ra artekoa** da (biak barne). Eskabideak helbide honetara zuzendu behar dira: Eusko Jaurlaritza-Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila, Euskara Zerbitzua (NOLEGA atala, URRUZUNOTARRAK GEHITUZ), Donostia kalea 1, 01010 Gasteiz. Bestela, epe horren barruan ZUZENEAN Zerbitzuaren edozein egoitzatan aurkeztu daitezke lanak: Bilbo (Gran Via, 85-48001); Donostia (Andia, 13 – 20003); Gasteiz (Ramiro de Maeztu, 10 behea – 01008), edota Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura erkidearen Legean ezartzen den edozein administrazio-gunetara ere eraman ahal izango dira.

7.- Datu pertsonalak Babesteko Lege Organikoak dioena betez, parte hartzaileak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailari baimena ematen dio eskabidean jasotako datuak bere informatika-fitxeroetan sar ditzan. Datuetara sartzeko, datuak aldatzeko eta deuseztatzeko eskubidea erabili nahi badu, Hezkuntza Sailburuordetzara jo dezake: Donostia kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz.

8.- Hoge lan onenak aukeratuko dira guztira; hamar kategoria bakoitzean (5 prosa-lan eta 5 poesia-lan). Aukeratutako hamar lan hauek sarituak izango dira.

9.- Saritutako lanen egileek bost eguneko prestaketa-egonaldian parte hartzeko aukera izango dute. Literatura-tailerraz eta idaztearekin zerikusia duen beste hainbat ekintzaz osatuko da egonaldi hori. Laguntzaile izango dute, uneoro, euskal idazle bat.

10.- Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak liburu bat argitaratuko du saritutako lanekin, bilduma gisa, *Sagastiberri* sailean.

11.- Hezkuntzako sailburuordeak idazlanak aztertu eta sariak nori eman proposatzeko epaimahaia izendatuko du. Epaimahaia sortzean, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.5 artikuluan agindutakoari jarraituz, bermatu egingo da trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izango dela. Aipaturiko epaimahaia literatura eta/edo irakaskuntzan nor diren euskal kulturaren munduko bost kidek eta Hezkuntza Sailburuordetzako bi lagunek osatuko dute.

12.- Idazlan onenak aukeratzeko, ondoko irizpideak izango ditu kontuan epaimahaiak:

- Idazlanaren arintasuna eta lotura.
- Hizkuntzaren erabilera zuzena eta aberastasuna.
- Sorkuntza eta irudimena.
- Testuaren ezaugarri literarioak (irudi literarioen erabilera).

13.- Epaimahaiak lan hoberenak zeintzuk diren erabaki eta hilabeteko epean bikaintasun-aiipamen hori merezi dutenei berariaz jakinaraziko zaie, etxean jasoko duten kartaren bidez, irabazle izan direla.

14.- Aurkeztutako lanek epaimahaiaren ustez gutxieneko mailarik ez balute, sariak eman gabe utzi ahal izango dira. Hala gertatzen bada, kategoria edo arlo batean eman gabe utzitako sariak beste kategoria edo arlo bati esleitzea erabaki dezake epaimahaiak, beste arlo horretan saria merezi duten bost lan baino gehiago baldin badaude.